



USURBILGO LANBIDE ESKOLAK PANAMAKO GOBERNUKO ORDEZKARITZA BISITAN IZAN DU.

Usurbilgo Lanbide Eskolak asteartan Panamako Ekonomia eta Lehiakortasun Idazkari Nagusiaren , Angel Esbrí jaunaren bisita jaso zuen.

Panaman Lanbide Heziketa Publikoa ez dagoenez Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatu zuten Lanbide Heziketako Eskola Publiko baten errealitate zein funtzionamendua ezagutzeko eta Panaman antzeko ereduak ezartzeko lankidetzak akordio bat adosteko.

Bisita oso aberasgarria gertatu zitzaion. Miguel Ángel Esbrí jaunak zein bere laguntzaileek Usurbilgo Lanbide Eskolaren instalazio zein kudeaketa sistemaren eraginkortasuna azpimarratu zuten.